

# AHOZKO HIZKUNTZAREN JABEKUNTZA ETA HONEN ZAILTASUNAK ETA NAHASMENAK

## GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Aberasturi Trigas, Tamara.

ZUZENDARIA: Reguero Ugarte, Urtzi.

**EKAINA - 2021**

## **LABURPENA**

Lan honen helburua ahozko hizkuntza jabetzeko bidea azaltzea eta honen garrantzia azpimarratzea da, Haur Hezkuntzako mailan oinarrituz (0-6 urte). Honekin batera, hizkuntza jabetzeko zailtasunak eta nahasmenak ezagutarazi nahi dira. Horretarako, honen oinarri biologikoak, teoria ezberdinak, garapena eta egitura ere ezagutu eta ulertu behar dira.

Hau da, hizkuntzaren jabetzari buruzko teoria ugari egon dira bizitzan zehar, autore oso ezagunen eskuetatik, hala nola, Skinner, Chomsky eta Piaget, besteak beste. Baina teoria hauek ulertzeko, lehenik eta behin, honen oinarri biologikoak ikertu behar dira. Ondoren, hizkuntzaren garapen prozesuaren dimentsioak haurtzaroaren etapa desberdinetan nola garatzen den jorratuko da. Hau ezinbestekoa da ahozko hizkuntzaren nahasmenak eta zailtasunak aztertzeko. Ildo honetatik jarraituz, Arreta Goiztiarra zer den eta ahozko hizkuntza nola lantzen den azpimarratzea ezinbestekoa da.

Amaitzeko, bost urteko TEA nahasmena duen ume bati bideratutako esku-hartze baten proposamen bat eskaintzen da, ahozkotutasuna lantzeko helburuarekin, ume honen beharrez nabarmenena baita.

## **RESUMEN**

El objetivo de este trabajo es explicar el proceso de la adquisición del lenguaje oral y destacar su importancia, concretamente en el nivel de Educación Infantil (0-6 años). Junto a esto, se pretende dar a conocer las dificultades y trastornos de la adquisición lingüística. Y para ello, hay que conocer y comprender sus fundamentos biológicos, sus diferentes teorías, su desarrollo y estructura.

Es decir, ha habido numerosas teorías sobre la adquisición del lenguaje a lo largo de la vida, de manos de autores muy conocidos como Skinner, Chomsky y Piaget, entre otros. Pero para comprender estas teorías, en primer lugar, es preciso investigar sus fundamentos biológicos. A continuación, se abordará cómo se desarrollan las dimensiones del proceso de desarrollo del lenguaje en las diferentes etapas de la infancia. Esto es imprescindible para analizar los trastornos y dificultades del lenguaje oral que existen y pueden darse. En este sentido, es imprescindible dar a conocer que es la Atención temprana y ver cómo se trabaja el lenguaje oral.

Para finalizar, se ofrece una propuesta de una intervención enfocada a un niño de cinco años con TEA, con el objetivo de trabajar la oralidad con el objetivo de trabajar la oralidad, que es la necesidad más destacable de este niño.

## **ABSTRACT**

The purpose of this work is to illustrate the path to the acquisition of the oral language and emphasize its importance, based on the level of the infant population (0-6 years). Along with this, the difficulties and disturbances of language ownership are intended to be known. For this purpose, the biological foundations, the different theories, the development and the structure of this subject must also be known and understood.

In other words, there have been many theories about the possession of language throughout life, from well-known authors, such as Skinner, Chomsky, and Piaget. But to understand these theories, we must first investigate its biological grounds. Then, the dimensions of the language development process will focus on how it evolves at different stages of childhood. This is essential to the study of the disturbances and difficulties of the verbal language. Following this line, the manner in which the oral language is cultivated in the Early Attention is indispensable.

Finally, is given a proposal for an intervention to a five years old child with a disorder called TEA, with the goal of cultivating orality, which is the most obvious necessity of this child.

## **AURKIBIDEA**

<b>1. SARRERA</b>	4
<b>2. JUSTIFIKAZIOA ETA HELBURUAK</b>	6
<b>3. MARKO TEORIKOA</b>	7
3.1. HIZKUNTZA	7
3.1.1. OINARRI BIOLOGIKOAK GIZAKIENGAN	7
3.1.2. HIZKUNTZAREN JABEKUNTZA HAURTZAROAN	8
3.1.3. IKUSPUNTU TEORIKOAK	9
3.1.4. HIZKUNTZAREN EGITURA ETA BERE GARAPENA	12
3.1.6. KOMUNIKAZIO-GAITASUNA	15
3.1.6. ZAILTASUNAK ETA NAHASMENDUAK	16
3.1.6.1. Komunikazioaren nahasmenak	16
3.1.6.2. Hizkuntzaren jabekuntzarako zailtasunak	18
3. 2. ARRETA GOIZTIARRA	20
3.2.1. ZER ETA ZERTARAKO	20
3.2.2. AHOZKO HIZKUNTZA	21
<b>4. ESKU HARTZEA</b>	22
4.1. USTEZKO PARTAIDEA	22
4.1.1. TEAren PAPERARRETA ARRETA GOIZTIARREAN	22
4.2. ESKU HARTZEAREN DISEINUA	23
4.2.1.METODOLOGIA	23
4.2.2. SEKUENTZIA-DIDAKTIKOA	24
4.3. EBALUAZIOA ETA EMAITZAK	28
4.4. HOBETUNTZAK	30
<b>5. ONDORIOAK</b>	31
<b>7. ERANSKINAK</b>	35

## 1. SARRERA

Giza espezieko kideak espezifikoki ezaugarritzen dituen funtzioen bat baldin badago komunikatzeko gaitasuna da, baita praktikan erabiltzen dituzten komunikabideak ere.

Hizkuntzaz ari garenean, gizakiak bere pentsamenduak adierazteko eta komunikatzeko duen gaitasunaz ari gara. Komunikazioa animalia espezie askotan gertatzen da, forma edo sistema desberdinen bidez, baina oso modu oinarritzkoan komunikatzeko aukera ematen dieten sistema mugatuak dira. Hala eta guztiz, gizakietan, hainbat sistema desberdinen bidez komunikatu ahal izateko gaitasuna dago (keinuen bidez, idazketaren bidez...) baina, batez ere, ahots-zeinuen bidez (ahozko hizkuntza) komunikatzen dira, modu askeagoan komunikatzeko aukera ematen duen sistema baten bidez. Azken hau sistema konplexuena da. Giza hizkuntzak funtzio desberdinak izan ditzake, eta horien artean komunikazioa nabarmentzen dugu, hau da, informazio-trukea. Beste funtzio garrantzitsu bat adierazgarritasuna da, giza hizkuntza eta animaliena bereizten duena. Bi funtzio horiek haurraren hizkuntzaren jabeakuntza prozesuaren bilakaera ulertzeko funtsezkoak dira (Navarro, 2008).

Jabeakuntza honi buruzko teoria ezberdinak daude, batzuk elkarri jarraitzen dutenak eta beste batzuk, aldiz, aurkariak direnak. Beraz, ez dago egia absoluturik. Hau da, betidanik eztabaidak egon da teorien artean, eta ez dago teoria bakar bat guztia biltzen duena. Burraco-k (2008) zioen moduan, orain arte ama-hizkuntza eskuratzeko prozesuan egin diren azalpenak eta azterketak, oro har, funtsezko bi esparru teorikoren barruan koka daitezke: innatista eta enpirista. Gaur egun, azken horren kritika oinarritzkoagoa egin daiteke, bai eta lehenaren baliozkotze zehatzagoa ere, azken urteetan prozesu horri buruz sortutako ebidentzia enpirikoak eta proposamen teorikoak kontuan hartuta.

Era berean, hizkuntzaren garapena eta jabeakuntza lortzeko ibilbide bat egin behar da, haurtzaroan batez ere esanguratsua dena. Ibilbide honetan, gizakietan orokorrean gauzatu behar diren ezaugarri komun batzuk daude. Hala ere, ibilbide hori egiteko zailtasunak dituzten umeak daude eta hauek ezin dira alde batera utzi. Hauek, arreta goiztiarraren laguntza jasotzen dute, beste laguntza batzuekin batera.

Lan honek ahozko jabeakuntzaren ibilbide guztia aztertu nahi du arreta goiztiarrean ahozkotatasuna lantzen duten umeengana heldu arte. Horretarako marko teoriko bat landu da, non oinarri biologikoak aipatu, ahozko hizkuntzaren jabeakuntza eta honen teoria ezberdinak aztertu, bere garapena ikusi eta existitzen diren hizkuntzaren nahasmen eta zailtasunak garatzen diren, arreta goiztiarra zer den, eskaintzen dituen baliabideak baita ahozkotatasuna lantzeko nola egiten den azaltzearekin batera. Ondoren TEA profil zehatz batean oinarritzen

den bost urteko haur baten kasua azalduko da eta ahozketasuna lantzeko unitate bat prestatu da, metodologia bat jarraituz eta honen emaitzak aztertuz. Autismoaren espektroko nahasmenduek (TEA) nahasmendu-multzo heterogeneoa da, bai etiologiari baita aurkezpen klinikoari dagokionez (Zuñiga, Balmaña eta Salgado, 2017). Haurtzaroan hasten dira eta bizitza osoan irauten dute, Gizarte-komunikazioan duten eragina eta jokabidearen patroia errepikakorrak eta murriztaileak ezaugarri komunenak dira.

Amaitzeko, lan hau egin ondoren atera diren ondorio garrantzitsuenak eta azpimarragarrienak azalduko dira.

## 2. JUSTIFIKAZIOA ETA HELBURUAK

Hasteko, GrAL honen gaia, hasiera batean *Ahozotasuna Lantzea HH* izen orokorrarekin, aukeratu dut hainbat arrazoiengatik. Hasteko, iaz *Hizkuntzaren Didaktika eta Atzerriko Hizkuntza* ikasgaiaren *Hizkuntzaren Didaktika* atalak ahozko hizkuntza jorratzen zuen, eta nire barruan honekiko interesa piztu zen eta gauza gehiago ikusteko eta ikasteko gogoarekin gelditu nintzen. Honekin batera, gizakiok dugun tresna tresnarik baliotsuenetako bat da. Honi esker, komunikazioa ahalbidetzen da, bai gure sentimenduak, beharrianak edota emozioak adierazteko baita elkarren arteko komunikazioa lortzeko ere. Halaber, zailtasunei eta nahasmenei ematen ez zaien agerikotasuna emateko helburuarekin aukeratu dut. Gutxiengoak beti egon dira gizartean ohikoa denaren pisuak estalita, eta etorkizuneko irakasle gisa, nire lanetako bat da premia guztiak asetzea da, baita gutxiengo horienak ere.

Bestalde, ahozko hizkuntza Haur Hezkuntzako etapan garrantzia oso handia dela jakina denez, honen garapena eta jabeakuntza lantzea ezinbestekoa dela uste dut. Gainera, ahozkotasanari buruzko abantailaz gain, beste batzuk ahalbidetzen ditu, hala nola, arazo praktikoak konpontzeko gaitasuna ahalbidetzen du, hizketa eta ekintza funtzio psikologiko beraren parte baitira. Berebat, hizkuntzaren erabilera egokia abstrakzioan eta kontzeptualizazioan laguntzen du eta testuinguru gabe erabiltzeko aukera ematen du, iraganeko gertaeren kontakizunaren, behaketak egitearen edo norberaren bizipenak kontatzearen bidez.

Jarraitzeko, gradu-amaierako lan bat egiteko ezinbestekoa da euskarri on bat izatea. Modu honetan, praktika kalitatezko ekintza ziurtatuko duen teoria egiaztatu eta fidagarri batekin baliozkotuko da.

Aurrekoa kontuan izanik, honako hauek dira lan honekin lortu nahi diren funtsezko helburuak:

- Ahozko hizkuntzaren gaia bere osotasunean eta modu labur batean sakontzea, eta honek duen garrantzia azpimarratzea.
- Haurrengan ahozko hizkuntza nola garatzen den ulertzea.
- Hizkuntzaren jabeakuntzari buruzko teoriak ezagutzea eta aztertzea.
- Ahozko hizkuntzaren nahasmenduak eta zailtasunak ezagutzea.
- Arreta goiztiarrean nola lantzen den ikusaraztea.
- Esku-hartzean bertan emaitza onak eragingo dituen unitate bat diseinatzea.

### **3. MARKO TEORIKOA**

#### **3.1. HIZKUNTZA**

##### **3.1.1. OINARRI BIOLOGIKOAK GIZAKIENGAN**

Gleason-ek (2010) adierazten zuen moduan, gizakien hizkuntza hura ikasteko bizi den gizartearen, hitz egiteko beste gizaki batzuen izatearen eta hori ahalbidetzeko motibazioaren eta adimen emozionalaren araberakoa da. Gizakiek ere eboluzionatu dute hizketarako gaitasun espezializatuekin eta hizkuntzaren atzean dauden mekanismo neuronalekin.


Gaur egun ikertzaileek ispilu-neuronen aurkikuntzaren eta garapen kognitiboan, linguistikoan eta sozialean izan dezaketen eginkizunean jakin-minez daude (Fogassi y Ferrari, 2007). Ispilu-neuronak gizabanako batek jarduera batean parte hartzen duenean edo bertan parte hartzen duen beste bat ikustean edo lotutako soinuak entzuten direnean aktibatzen diren neurona mota bat da (Kholer, Keyzers..., 2002). Neurona horiek empatia eta imitazio gisa ezagutzen dugunaren osagai izan daitezke. Hizkuntzaren garapenean inplikazio ugarien artean, garrantzitsuenetako bat, helduek umeekin hitz egiten dutenean haurraren hizkuntza eredu neuronalak aktibatzeak aukera da.

#### **Garuneko hizkuntza eremuak**

Primateek ez bezala, gizakiek garunean kortexaren eremuak dituzte, eta horrek hizkuntzarekin erlazioa duela ikusi da. Herritar gehienek hizkera lateralizatua ezkerreko hemisferioan dute, baina eskuineko hemisferioak hizkuntzaren prozesamenduaren alderdi batzuetan ere parte hartzen du, baita hizketaren tonu emozionalaren azterketan ere (Caplan, Lecorus eta Smith, 1984). Ezkerreko hemisferioan ondo finkatuta dauden hizkuntzaren funtsezko hiru eremu daude, gutxienez:

- Brocako eremua, ezkerreko aurrealdean, mingaina eta ezpainak kontrolatzen dituen eragile-zintatik oso gertu dago.
- Wernicke eremua atzeko ezkerreko lobulu tenporalean dago, burmuineko entzumen- asoziazio eremuetatik gertu.
- Faszikulu arkeatua Wernicke eta Broca eremuak lotzen dituen zuntz subkortikalen zinta bat da.





Iturria: Viviana Islas

### **Ezaugarri bereziak**

Lenneberg-ek (1967) ezaugarri gehigarrien zerrenda bat egin zuen, gure espeziean hizkuntza gizakion berariazkoa eta uniforme den froga gisa, ezaugarri nagusiei dagokienez:

1. Hizketaren agerpena espeziean erregularra da , ez dago ikasten ari den kulturaren ezta hizkuntzaren mende.
2. Ezin da hizketa ezabatu, garapen normala duten haurrek hitz egiten ikasten dute hitz egiten duten adineko pertsonekin badaude.
3. Ezin zaie beste espezie batzuei hizkuntza irakatsi, baina baieztapen hori hizkuntzari buruz egiten den definizio zehatzaren arabera da.
4. Hizkuntzek ezaugarri unibertsal jakin batzuk dituzte, hala nola fonologia, gramatika eta semantika.

#### **3.1.2. HIZKUNTZAREN JABEKUNTZA HAURTZAROAN**

Hizkuntzaren jabeakuntza gure bizitzan gutako edozeinek lortuko duen lorpen intelektualik handiena delako bereizi egiten da (Bloomfield 1933). Konplexua den prozesu bat da, xehetasun bereziz aztertu behar dena. Hala ere, ez dago behar bezala deskribatzen duen esparru teoriko adosturik. Burraco-ren (2008) arabera, alde batetik, hizkuntza-izaerako funtsezko ebidentzia ugari kontuan hartzea, baita eragiten duen eta haren mende dagoen input baten propietateak ere, hizkuntzaren jabeakuntza jaiotzetiko ezagutza gramatikal baten menpe soilik egongo litzatekeela iradokitzen eraman du. Bestalde, esanguratsuak diren datu ugari daude, beste espezie batzuetako komunikazio-sistemekin gertatzen ez den bezala, giza hizkuntzaren kasuan esperientziak berebiziko garrantzia izango lukeela horiek eskuratzeko orduan adierazten dutela, eta, ondorioz, prozesua hainbat ikaskuntza-estrategia orokorren bidez gertatuko litzatekeela proposatzen da.

### 3.1.3. IKUSPUNTU TEORIKOAK

Ahozko jabekuntzari buruzko egia absolutua ez dagoenez, Hernandez Piña-k (1984) ahozko hizkuntzaren jabekuntzaren teoria desberdinak aipatzen ditu:

#### **Konduktismoaren teoria psikologikoa**

Konduktismoa psikologia zientzia objektibo bihurtzeko helburuarekin sortu zen. William Jamesen eta Chicagoko Taldearen estrukturalismoaren eta funtzionalismoaren eskolaren aurkako eskola bezala garatu zen. Konduktistak objektiboki beha daitezkeen gertaeretan baino ez dira oinarritzen ezta onartzen. Teoria honen ordezkari nagusia Skinner da.

Skinnerrek (1957) giza espeziearen jokabide-errepertorioaren zati handi bat eraginkorra dela uste du, hau da, gizakiak inguruan dituen efektuek eta efektu horiek dakartzaten harreman funtzionalek kontrolatutako jokabidea da. Kasu horretatik abiatuta, Skinnerrek, oro har, bi jokabide operatibo mota antzematea posible dela adierazi du.

Lehenengoa, espezieen artean ohikoa dena, ingurunean zuzeneko ondorioak dituen jokabide mota da, gauzen egoera jakin bat aldatzen duena edo ondorio partikularrekin erlazionatzen dena, horiekin kontaktu fisiko edo mekanikoaren bidez. Bigarrena beste operatzaile mota bat da, gure espezieari dagokiona, eta, hain zuzen ere, beste pertsona baten jokabideak eragiten dituen ondorioak dituelako bereizi egiten da.

Bigas eta Correig-en (2008) arabera, Skinnerren teoria konduktista hau kritika ugariaren erdigunea izan da, besteak beste, egitura morfologikoak, fonemikoak eta sintaktikoak, ez dituelako kontuan hartzen, eta ez duelako inolako ekarpenik egiten hizkuntzak gizadiaren historian zehar nola agertu eta garatu diren ulertzeko.

#### **Bitartekotzaren teoria**

Teoria hau Skinnerren planteamenduei irtenbideak bilatzen saiatzen da. Bere kontzeptua Pavloven aldamenekotasunaren teorian oinarria du, non estimulu baten erantzunak hasiera batean neutroa den beste batek eragin ditzakeen; hau da, erantzun bat estimulu berri bati lotuta doa, estimulu horrek eragiten duen erantzunarekin behin eta berriz lotura duelako.

Hernández Pina-k (1984) erantzuna bi modutara ikus dezakegula defendatzen du: bat jatorrizko estimuluaren aurrean bakarrik gertatzen dena (kanpoko ageriko erantzuna), eta bestea estimulurik gabe gertatzen dena (erantzun ikusezina eta erantzunetik bereiz daitekeena). Erantzunetik bereiz daitezkeen zatia, bitartekaria izenekoa, barne-estimulu gisa erabil daiteke, bitartekaria ere deitzen dena.

Teoria horri egindako hainbat kritika daude: lehenengoa, gertakariak abstrakzioa erabiliz azaltzea ez onartzeari buruzkoa; eta bigarrena, erreferentziarik ez duten eta erantzun zehatz baterako pizgarri izan daitezkeen hitz ugari daudela (Herrezuelo, 2014).

### **Teoria psikolinguistikoa**

Teoria honen ordezkari handiena Chomsky da. Teoria konduktistek ez bezala, honek hizkuntza jaiotzatiko zerbait bezala ikusten du.

Chomskyrentzat (1989), kompetentzia linguistikoa subjektu orok bere hizkuntzari buruz duen ezagutza inplizitua da, bere hizkuntzaren formaren araberrako esaldiak ulertu eta sortzeko aukera ematen diona. LAD (Language Acquisition Device) izeneko sortzetiko mekanismo bat aldarrikatzen da. Mekanismo horrek perpausak eratzeko arau edo printzipio multzo bat du, baita adingabeak beren komunikazio-testuinguruan azaltzen diren hizkuntza partikular batean printzipio horiek nola aplikatzen diren jakiteko prozedurak ere.

Chomskyren hizkuntzari buruzko teoriak aurreko teoriak eragiten duten asegabatasunetik sortzen dira, baita ikuspegi horiek erabat eta behar bezala azaldu ezin dituzten zenbait behaketetatik ere. Laurogeiko hamarkadan, Chomskyren ikuspegia, *zuzentasunaren eta loturaren teoria* deitua, programa minimista edo, sarriago, *printzipioen eta parametroen teoria* bezala ezagutzen den ikuspegi batengatik ordezkatu zen (Chomsky, 1995).

Chomskyren ikuspegiaren arabera, hizkuntzari eskainitako garunaren zatiari Hizkuntza Gaitasuna esaten zaio. Hasierako egoeran, ahalmen hori genetikoki determinatuta dago, eta giza espezieko kide guztientzat antzekoa da, patologia larria dutenentzat izan ezik (Chomsky eta Place, 2000). Hasierako egoera hau azaltzen duen teoriari Gramatika Unibertsala deitzen zaio, munduko hizkuntza guztietarako komunak diren erregela eta kategoria gramatikalen sistema dituen. Ikuspegi horren arabera, giza hizkuntza bakoitza etengailuen posizio espezifiko baten emaitza da: parametroen konfigurazio bat (Chomsky, 1995).

### **Heltzearen teoria**

Teoria honen ordezkari nagusia Lennenberg (1975) da, hizkuntzaren faktore biologikoaz interesatua. Berarentzat hizkuntza nerbio-sistema zentral batean eta heltze-prozesu batzuk behar dituzten organo periferikoetan oinarritzen da. Heltze hori ingurumenaren interakzioaren bidez eskuratzeko oinarria da. Hizkuntzaren agerpena gaitasunen hedapen mailakatuan oinarritzen dela ere defendatzen du; bizitzako bigarren eta hirugarren urteen artean gertatzen diren zenbait gertakarietan, oro har ondo mugatuta

daudenak.

### **Konstruktibismoaren teoria**

Piaget garapen kognitiboaren ordezkari nagusia da. Piaget-ek (1983) garapen kognitiboa unibertsala dela proposatu du, eta hizkuntzaren garapenean garrantzia izango duela azpimarratu du; horrela, adingabe bakoitzak aurreko etapak gainditu beharko ditu ondorengo garapen hoberena lortu ahal izateko. Piageten ustez, garapen kognitiboak garapenean zehar gertatzen diren eta hizkuntzaren garapena modu erabakigarrian baldintzatzen duten etapa batzuk ditu:

- Etapa sentorimotorea (0-24 hilabete): informazio sentorialaren eta erantzun motorren arteko koordinazioa garatzen da. Objektuaren iraunkortasunaren garapena ematen da eta imitazioa, memoria eta pentsamendua erabiltzen da.
- Eragiketa aurreko etapa (2-7 urte): Egozentrismoaren etapa bezala ezagutzen da. Honetan, pentsamendu sinbolikoaren garapena bereizgarria da eta beste pertsona baten ikuspuntua kontuan hartzeko zailtasuna aurkezten dute.
- Eragiketa zehatzak (7-11 urte): gertaera zehatzei aplikatutako eragiketa mentalak egiten dituzte. Sailkapen hierarkikoa egiteko eta itzulgarritasuna ulertzeko gaitasuna dute.
- Eragiketa formalak (11-12 urte): ideia abstraktuei aplikatutako eragiketa mentalak gauzatzen dituzte Pentsamendu logikoa eta ordenatua eta gai sozialekiko interesa aurkezten dute.

Bestalde, teoria honen beste ordezkari garrantzitsu bat Vigostky izan zen. Funtsean, Vigostkyk materialismoan oinarritzen da. Materialismoaren arabera, aldiz, materia lehena dago. Gure burmuina lehena dago eta gure burmuinak ideiak sortzen ditu. Hau da, ideiak sortzen dira materia dagoelako. Baina materialismoak beste adjektibo bat dauka: dialektikoa. Dialektikoa, etengabeko mugimenduan dagoena esan nahi du. Hau filosofiaren hastapenetatik datorren eztabaida bat da.

Dialektismoaren beste printzipio bat ukapenaren ukapena da. Fenomeno hori aldaketa kualitatibo baten barruan gertatzen da, eta zerbaitek zerbait hori izateari uztea esan nahi du beste zerbait bilakatzeko, eta aldaketa horiek kualitatiboak dira.

Vygotskik "pentsamendua eta hizkuntza" liburuan adierazten duenez, hizkuntzak bi funtzio ditu. Alde batetik, besteekiko kanpo-komunikazioa dago, hizkuntza eta pentsamenduaren jabeakuntza umea gizartearen parte delako gertatzen baita, azken finean hizkuntza produktu soziala delako. Bestalde, norberaren barne-pentsamenduen barne-

manipulazioa.

### **Teoria soziologikoa edo soziosemantikoa**

Halliday teoria soziolinguistikoaren ordezkari nagusia da. Hizkuntzalaritza Funtzional Sistemikoaren (HFS) korrontea garatu zuena izan zen. HFSk europar hizkuntzalaritzaren tradizioa jasotzen du eta bere jatorria Pragako Eskolan dago. Era berean, Malinowskiren ikuskera antropologikoa eta, nagusiki, Firth hizkuntzalari britainiarraren lanak eraginda, Halliday-k (1975, 1978) proposatutako ikuspegiak bere orientazio funtzionala eta semantikoa ditu ezaugarri. Hogeigarren mendeko bigarren erdialdeko antzeko beste teoria batzuk bezala, HFSk hizkuntzaren eta testuinguru sozialaren arteko harremana azpimarratzen du, biak semiosiaren maila osagarritzat hartzen direlarik.

HFS-aren ustez, hizkuntza testuinguru batean esanahiak adierazteko baliabide sistematikoa da. Hizkuntza potentzial semiotiko gisa kontzeptualizatzen da; hau da, aukera semantikoen sistema gisa, eta horien artean, igorleak bere mezua solaskideari edo irakurleari hobeto transmititzeko aukera ematen diotenak hautatzen ditu (Kaplan, 2004).

Hallidayren arabera (1975), hizkuntzaren jabekuntzak hiru fase izango lituzke:

- Lehenengo fasea (9-15 hilabete): Hizkuntzaren aurreko fasea. Adierazpenaren eta edukiaren arteko lotura sistematikoa dago.
- Bigarren fasea (16 hilabete): Hiztegiaren eta elkarrizketaren ikaskuntzan garapen azkarra.
- Hirugarren fasea: Haurren hizkuntza helduaren hizkuntzarako egokitzapena.

#### **3.1.4. HIZKUNTZAREN EGITURA ETA BERE GARAPENA**

Hizkuntzaren garapena prozesu konplexu bat da, garapenaren eremu desberdinekiko interakzioan gertatzen dena. Hizkuntza-sisteman hiru dimentsio bereizten dira: forma (fonetika, fonologia eta morfosintaxia), edukia (semantika) eta erabilera (funtzio pragmatikoak).

Hau azaltzeko, Pérez, Salmerón, eta Pedraza-k (2006) haurtzaroaren etapa desberdinetan arlo bakoitza nola garatzen den azaltzen dute.

**1. Taula:** 1. Urtea

Fonetika eta fonologia	Morfosintaxia	Semantika	Pragmatika
Familiako ahotsak identifikatzen ditu.		<p>- Hitzak eta esamoldeak ulertzen ditu, agindu errazetan eta egoera familiarretan oinarrituta.</p> <p>- Bi edo hiru hitz erabil ditzake, nahiz eta oso zabalak izan.</p>	<p>- Komunikazioaren oinarriko mekanismoak hitzik gabeko mailan bereganatzen ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Giza ahotsari erreakzionatzen dio eta ahots familiarrak identifikatzen ditu.</li> <li>• Helduaren aurpegiari arreta jartzen dio</li> <li>• Ozen barre egiten du.</li> <li>• Badirudi helduari erantzuten diola hitz egiten dionean.</li> </ul> <p>- Komunikatzeko baliabide ezberdinak erabiltzen ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Jargoia</li> <li>• Hatzarekin seinalatu</li> <li>• Gorputzezko baietz/ezetza</li> <li>• Keinu naturalak erabiltzen ditu.</li> </ul>

## 2. Taula: 12-24 hilabete

Fonetika eta fonologia	Morfosintaxia	Semantika	Pragmatika
Haur-hizkuntza: hitzetara hurbiltzeko estrategiak.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lehenengo hitzak</li> <li>- Hitz-esaldiaren etapa</li> <li>- Ondoren bi hitz elkartzen hasten da</li> <li>- Ukapena eta galdera gehitzen ditu.</li> <li>- Sintaxi propioa</li> <li>- Era telegrafiko antzeko hizketa da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eguneroko objektuak eta ekintzak ezagutzen eta izendatzen ditu.</li> <li>- Egunero hitz berriak gehitzen ditu.</li> <li>- Erabilpen anitzeko hitzak desagertuz doaz.</li> </ul>	<p>Hizkuntza erabiltzen du:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Eskaerak egiteko</li> <li>• Desioak eta arbuioak adierazteko.</li> <li>• Objektuak izendatzeko.</li> <li>• Egoerak partekatzeko.</li> </ul>

## 3. Taula: 24-36 hilabete

Fonetika eta fonologia	Morfosintaxia	Semantika	Pragmatika
Gero eta hobeto enteratzen da, nahiz eta hizkeraren berezko akatsak gerta daitezkeen, adibidez: <ul style="list-style-type: none"> <li>– Zailtasunak /r/ ahoskatzeko orduan.</li> <li>– Diptongoak sinplifikatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hiru elementu dituen perpausak.</li> <li>- Esaldi sinpleak erabiltzen ditu.</li> <li>- Galderazko eta baiezko perpausak ulertzen eta adierazten ditu.</li> <li>- Artikuluak, plural-markatzaileen eta izenordainen erabilera.</li> <li>- Perpaus koordinatu errazak erabiltzen hasten da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Objektuen edo ekintzen arteko harremanak dakartzaten egoera eta agindu konplexuagoak ulertzen ditu.</li> <li>- Izenondo errazak ulertzen ditu.</li> <li>- Objektuen erabilera ulertzen du.</li> <li>- Bere hiztegia egunez egun zabaltzen jarraitzen du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hizkuntzarekiko interes handia du, gauzen izenaz eta zergatiaz galdetzen du.</li> <li>- Gertaera pertsonalak kontatzen hasten da.</li> </ul>

#### 4. Taula: 36-72 hilabete

Fonetika eta fonologia	Morfosintaxia	Semantika	Pragmatika
Akatsak egon daitezke /r/ ahoskatzean baita hura dituen sinfoiak sinplifikatzean.	Gramatika konplexuagoa erabiltzen du: - Aditz-jokoak - Generoaren eta zenbakiaren arteko komunztadura. - Mendeko perpausak erabiltzen ditu.	- Aurrerapen esanguratsuak, ulermenari dagokionez: • Ukamena dakarten perpausak. • Asmakizunak, txantxak. - Hiztegi adierazkor eta ulerkorraren erabileraren igoera.	Hizkuntzaren erabilera finkatzen da: - Jolaseko ekintzari hizkerarekin laguntzen dio. - Narrazio konplexuagoak egiten ditu. - Bere hitzaldia antolatuagoa da. - Deskripzioak egiten hasten da. - Entzundako ipuinak xehetasunez kontatzen ditu. - Hizkuntzarekin jolastea eta historia asmatzea gustatzen zaio.

#### 3.1.6. KOMUNIKAZIO-GAITASUNA

Heymes-en (1967) arabera, komunikazio-gaitasuna hizkuntza testuinguru sozial batean modu egoki eta estrategikoki batean erabiltzeko gaitasuna da. Zer, non, nola eta norekin komunikatu daitekeen jakitea barne hartzen du. Komunikazio-jokabideen artean errutinak, kortesia-adierazpenak, elkarrizketa-trebetasunak eta hizkuntza-aldaerak daude, hala nola euskalkiak eta erregistroak. Haurrek komunikazio-gaitasuna eskuratzea oso garrantzitsua da, horrek eskolan arrakasta izaten, irakurketa- eta idazketa-trebetasunak aurreikusteko aukera ematen eta ikaskideen artean ospe handiagoa lortzen laguntzen baitie.



Gaitasun komunikatiboaren azterketari buruzko funtsezko bi ikuspegi teoriko daude: hizketa-ekintzen teoria eta teoria kognitibo ebolutiboa. Austin-en (1975) hizketa-ekintzen teoriak komunikazioa hiru elementutan banatzen du ekintza lokutiboak, ilokutiboak eta perloutiboak) perpaus baten formaren eta testuinguruaren arteko elkarrekintza hiztunaren asmoekin eta entzuleak ulertzen duenarekin nola lotzen den erakusteko. Teoria horrek hizkuntza-ekintzen edo komunikazio-jokabideen multzo bat ere identifikatzen du. Piaget-en (1974) teoria kognitibo ebolutiboa eskolaurreko umeei, komunikatzen direnean, entzuleen ikuspegia hartzeko gaitasun gutxi duten gizabanakoak direla aintzakotzat hartzen du.

Becker-ren (1994) ikerketak eskolaurrekoak komunikazio-jokabide ugari erabiltzeko eta beren komunikazioa entzule eta egoera desberdinetara egokitzeko gai direla adierazten du. Zeharkako eskaerak barne hartzen dituzte, non forma nahitaez funtzioarekin bat ez datorren, eta entzulearen estatusaren arabera eskaera mota desberdinak sortzen dituzte; horrek hizkuntza-formen eta hiztunen estatusaren arteko harremanean nolabaiteko ulermena dutela iradokitzen du. Txandak har ditzakete eta hizketagaia mantendu dezakete, eta atzeraelikadurari ematea eta erantzutea ahalbidetzen dieten oinarrizko trebetasunak dituzte. Eskolaurreko umeei etniarekin, generoarekin eta rol sozialarekin lotutako hizkuntza-aldaerak ere hartzen dituzte. Nahiz eta zentzu askotan komunikatiboki trebeak izan, euren trebetasunak adinarekin sofistikazioan irabazten joango dira.

Komunikazio-gaitasuna eskuratzea nahiko zaila da, eta badirudi familiak eta eskolak zeregin garrantzitsua betetzen dutela biek. Familiak komunikazio-jokabideak sozializatzen dituzte, eta eskolaurrei presio egiten diete, komunikazio-modu osagarriak gara ditzaten, modu egokian komunikatzeko. Eskola-eremuan, irakasleek eta ikaskideek komunikazio-garapenerako aukerak ere eskaintzen dituzte. Eskolaurreen esperientziek, gidoiei buruz dituzten ezagutzek eta komunikazioari buruzko hipotesiak egiteko duten joera naturalak eskuratze-prozesua bultzatzen dute (Heymes, 1967).

### *3.1.6. ZAILTASUNAK ETA NAHASMENDUAK*

Navas-ek (2004) alde batetik DSM-IV-ak (Amerikako Psikiatria Elkartearen Buruko nahasmenduen Diagnosi eta Estatistika Eskuliburua) ezartzen dituen komunikazioaren nahasmenak azaltzen ditu eta, bestetik, hizkuntzaren jabekuntzarako zailtasunak.

#### **3.1.6.1. Komunikazioaren nahasmenak**

##### Adierazpen hizkuntzaren nahasmendua

Honako ezaugarri hauek ditu: hizketaren muga kuantitatiboa, hiztegi txikia, hitzen eta hiztegien oroipen-akatsak, hitz berriak ikasteko zailtasuna, oso esaldi laburrak eta gramatikalki sinpleak, egitura gramatikal mugatuaren aldaerak, hizkuntza geldoaren garapena, oso ohikoa ez den hitzen antolaketa eta subjektuaren eboluzio-mailari dagozkion luzera edo konplexutasuneko esaldiak sortzeko zailtasunak (Navas, 2004, 109. or.).

#### Hizkuntza hartzailearen eta espresiboaren nahasmendu mistoa

Navas-ek azaltzen zuen moduan (2004, 11. or.) nahasmendu honen ezaugarriak aurretik adierazpen-hizkuntzaren nahasmenduan aipatutakoak dira, eta honi hizkuntza hartzailearen garapenean arazoak gehitzen zaizkie: hitzak ulertzeko zailtasunak, esaldiak ulertzeko arazoak, etab. Kasu arinagoetan, ulermen falta hitz edo esaldi konplexu mota berezi batera mugatzen da. Kasurik larrienen, asaldurak anitzak dira, eta oinarritzko hitzak edo esaldi errazak ez dituzte ulertzen.

#### Nahasmen fonologikoa

Hizkuntzako eta subjektuaren adinerako eboluzioz egokitutako hizketa soinuak erabiltzeko ezintasuna da. Ekoizpen fonologikoan gertatzen diren akatsak dira, hizketa-soinuak zuzen sortzeko ezintasuna dakartenak, baita hizketa-soinuak hizkuntzari dagokionez kategorizatzekeko urritasuna dakarten arazo kognitiboak ere (Navas, 2004, 111. or.).

#### Mututasun selektiboa

Egoera jakin batzuetan edo pertsona jakin batzuen aurrean, hizkuntza normaltasunez garatu duten haurrengan hizkuntzaren erabateko desagarren etengabea da. Oro har, gizarte-egoera espezifikoetan hitz egiteko ezintasun iraunkorra izaten dute, nahiz eta normalean beste egoera batzuetan hitz egin. Hitz egiteko ezintasun hori gizarte-egoeran beharrezkoa den hizkuntza mintzatuaren ezagutza edo arintasun faltagatik ez da gertatzen. Aldaketak eskolako edo laneko errendimendua edo gizarte-komunikazioa oztopatzen du, eta iraupena, gutxienez, hilabetekoa da (Navas, 2004, 112. or.).

#### Toteltasuna

Navas-ek (2004, 113. or.) hizketaren arintasuna eta denboraren egituraketa aldatuta daudela defendatzen zuen, baita subjektuaren adinerako ez direla egokiak ere. Orduan, soinuen eta silaben errepikapenak, soinuen luzapenak, interjekzioak, etenaldiak eta hitzen zatikatzea, blokeoak, zirkunlokioak, monosilaboen errepikapena eta tentsio fisikoa gertatzen dira.

Nahasmenduaren intentsitatea asko aldatzen da egoera batetik bestera. Ikusi da ahozko irakurketan, eta bakarrik egon ezker, objektu bizigabeei eta/edo animaliei kantatzerakoan edo hitz egiterakoan ez dela gertatzen. Hala ere, hitz egiteko presioa dagoenean areagotu egiten da, eta horrek subjektua egoera jakin batzuk saihestera eraman dezake. Hau da, toteltzeak dakarren antsietateak, frustrazioak eta autoestimua murrizteak gizarte-jarduera alda dezakete.

#### Komunikazioan zehaztu gabeko nahasmendua

Hemen inolako komunikazio-nahasmenduren diagnostiko-irizpideak betetzen ez dituzten komunikazio-nahasmenduak biltzen dira (Navas, 2004, 113. or.).

### **3.1.6.2. Hizkuntzaren jabekuntzarako zailtasunak**

#### Komunikatzeko zailtasunak

Hemen, mututasun selektiboa, aurreko atalean azaldutakoa, eta komunikatzeko zailtasun larriak daude. Azken hori garapen psikologikoko arazoekin batera doazen hizkuntza-arazoak dira, hala nola autismoa edo haurren psikosia (Navas, 2004, 114. or.).

Oso garrantzitsua da hitz egiten ez duen haur baten aurrean, ezer baino lehen, oinarri biologikoko mututasunik dagoen eta garuneko lesioekin edo gorra sakonekin lotzen den baztertzea. Era berean, mututasuna benetan selektiboa den egiaztatu behar da eta garapenaren nahasmendu orokortuekin batera gertatzen den mututasun orokortua ez den ere, hala nola autismoa.

#### Hizketaren zailtasunak

Hizketaren zailtasunak dislaliak, disglosiak, hizketaren atzerapenak eta disfemiak dira (Navas, 2004, 115-119 or.).

Dislaliak fonemen artikulazioen omisio, gehitze, ordezte edo deformazio nahasmenduak dira, atzerapenek, ikaskuntza desegokiek, buko-fono-praxia desegokiek, entzumen-diskriminazio eskasak eta abarrek eragindakoak. Dislaliak sortzen dituen arrazoiaren arabera sailkatzen dira, eta ebolutiboak, funtzionalak, organikoak eta audiogenoak izan daitezke. Hala ere, muga kognitiboengatik edo arazo psikosozialengatik artikulazio-nahasmenduak ere gerta daitezke.

Dislalia ebolutiboak hizkuntzaren garapena edo jabekuntza osatu ez duten eta gurasoak eta irakasleak kezkatu behar ez dituzten haur txikienean erakusten dituzten artikulazio-arazoak dira, adinarekin desagertzen baitira (lau urtetik aurrera). Dislalia funtzionalak artikulazio-nahasmendu ezezagunak dira. Dislalia organikoetan, artikulazio-

arazoak mintzamenean inplikaturako organoetako lesioek eragiten dituzte, eta disartriak eta disglosiak bereizten dira. Azkenik, dislalia audiogenoak entzumen-zailtasunek eragindako artikulazio-arazoak dira.

Disartria nerbio-sistemako lesioek eragiten duten fonemen artikulazio- edo ekoizpen-arazo bat da. Honen ezaugarri berezienak hizketa motela, tonu eta bolumen irregularrekoa, artikulazio akastuna eta arnasketa ez oso koordinatua dira.

Disglosiak mintzamenaren organoetan alterazio edo malformazio fisiologiko edo anatomikoen ondorioz sortzen diren fonemak sortzeko arazoak dira. Horregatik, duela gutxi arte, dislalia organikoak deitzen zitzairen.

Hizketaren atzerapenek sistema fonologikoan desfase kronologiko garrantzitsuak dakartzate, eremu morfosintaktiko eta semantikoei eragiten ez dietenak. Fonemen ekoizpenean modu globalean eragiten dute, haurrak adin kronologiko baxuagoko beste batek egingo lukeen bezala ahoskatzen du eta bere garapen fonologikoa motelagoa da. Atzerapen horien arrazoia izan daitezke, besteak beste, eremu afektiboko nahasmenduak, hazkuntza-giroan ahoko estimulazio egokia ez izatea, haur-hezkuntzako lehen zikloari dagokion adinean (0-3 urte) luzatutako gaixotasunak, muskuluen koordinazio-arazoak, etab.

Disfemiek hizketaren arintasunari eragiten diote, eta erritmoaren eta melodiaren alterazioak dira, errepikapenen eta blokeoen ondorioz. Tradizionalki totalka deitu izan dena bezala ezagutzen da. Batzuetan, disfemia takifemiarekin nahasten da, takilalia ere deitua, fonema eta silaben blokeoa edo errepikapena eta omisioa bereizgarri dituen, baina arazoa ezberdina da. Takifemian aldatutakoa hizketaren abiadura eta ordena baita.

#### Hizkuntzaren zailtasunak

Hemen, afasiak, disfasiak eta hizkuntzaren atzerapenak sailkatzen dira (Navas, 2004, 119-124 or.).

Afasiak hizkuntzaren ulermenean edota produkzioan distortsioak dakartzate, normalean hitz egiten eta ulertzen zuten haurrengan. Garuneko lesioen ondoriozko distortsioak organo hartzaileak edo igorleak eta adimen-gaitasunak aldatu gabe sortzen dira.

Sintomatologiaren eta kaltetutako garunaren zatiaren arabera, desberdintasunak ezarri ohi dira adierazpen-afasien, harrerako afasien edo afasia sensorialen eta afasia amnesikoen artean. Adierazpen-afasien taldean afasia motorra, gidatze-afasia eta agramatismoa daude.

Disfasiak sortzetiko- edo garapen-afasiak dira. Hau da, hizkuntzaren jabekuntzari eragiten dioten eta jabekuntza eta ulermena desitxuratzen duten nahasmendu sakonak dira. Soinuen pertzepzio-bereizketan eta horien artikulazioan gabeziak daude.

Hizkuntzaren atzerapenak eremu adierazkorrean eta hartzailean ematen diren desfase kronologiko garrantzitsuak dira. Hau da, hizkuntza ohikoa dena baino beranduago agertzen da eta oso poliki garatzen da.

### 3. 2. ARRETA GOIZTIARRA

#### 3.2.1. ZER ETA ZERTARAKO

Arreta goiztiarra 0-6 urteko haurrei, familiari eta inguruneari zuzendutako esku-hartzeen multzoa da. Esku-hartze horien helburua garapenean nahasmenduak dituzten edo izateko arriskua duten haurren premia iragankor edo iraunkorrei ahalik eta lasterren erantzutea da. Esku-hartze horiek haurren osotasuna hartu behar dute kontuan, eta diziplinarteko edo diziplinaz gaindiko orientazioko profesional-talde batek planifikatu behar ditu (Arreta Goiztiarraren Liburu Zuria, 2000).

Millá eta Mulas-en (2004) azaldu zuten moduan, arreta goiztiarra errehabilitaziotik harago doala kontuan hartu behar da; aldi berean, arreta medikoa, psikologikoa, hezitzailea eta familiari laguntzea da, bereziki kritikoak diren egoera batzuetan, hala nola seme-alaba baten desgaitasunaren onarpenean. Garapen-arazo bat dagoela egiaztatzean itxaropenak hausten badira, familiaren egoera berrantolatu behar da, eta ingurunea haurraren mugetara eta aukeretara egokitu behar da.

13/2016 dekretuaren arabera, Arreta Goiztiarraren helburu espezifikoak hauek dira:

- Bigarren mailako edo trastorno bati edo arrisku handiko egoera bati lotutako urritasunak edo defizitak ager daitezen saihestea edo murriztea.
- Urritasun edo defizit batek haurrarengan, globaltasunean hartuta, eragiten dituen efektuak murriztea.
- Haurraren garapena optimizatzea, ahal den neurrian.
- Konpentsatzeko, oztopoak ezabatzeko eta premia espezifikoetara egokitzeo beharrezkoak diren mekanismoak sartzea.
- Familiaren eta haurra bizi den ingurunearen premiak eta eskaerak artatzea eta betetzea; haurraren ingurunea zera da, gizarte-ingurunea, zentzu zabalenean hartuta, hau da, giza-ingurunea –familia eta ohiko beste

zaintzaile batzuk, bai eta profesionalak ere—, eta ingurune fisikoa familiaren edo erakundearen etxea, ikastetxea, osasun-zentroa, ospitalea, gizarte-zerbitzuak, espazio publikoa—.

### 3.2.2. AHOZKO HIZKUNTZA

Hizkuntzaren ebaluazioaren garrantzia komunikazioan ager daitezkeen patologietan berresteko edo esku hartzeko prozesua gidatzeko aukeran oinarritzen da, txosten epidemiologikoetan prebentzio-programak ezartzeaz gain eta arriskukotzat jotako taldeen azterketa eta jarraipen goiztiarrean oinarrituta, hizkuntza-domeinuen garapenari edo gauzatzeari eragiten dioten zenbait aldagai partekatzeaz gain ere. Era berean, berriz hezteko edota esku hartzeko programen plangintza eta ezarpen goiztiarra ahalbidetzen du (Gómez eta Álvarez, 2005).

Kezka-adierazleak zehazteko, Perez, Salmeron eta Pedrazak (2006) hizkuntzaren hiru dimentsioak hartzen dituzte kontuan: forma, edukia eta erabilera. Adierazle guztiak kezka maila bera ez dutela uste dute. Horrela, esaldiaren erabilerari, ulermenari edota egiturari buruzkoak direnak fonema batzuen ahoskerari buruzkoak baino larriagoak dira.

- Komunikazioarekiko, giza ahotsarekiko eta hizkuntzarekiko interesik ez duen haur batek ez du komunikatzeko gogorik, edo oso urria da, edo hurbileko pertsonekin eta komunikazio berezia dutenekin soilik hitz egiten du.
- Eguneroko bizitzari dagokionez, bere ulermen maila zalantzan jartzen du.
- Ez da hitzik edo hitzen zatirik hautematen bizitzako lehen urtean katarro asko edo belarrietako infekzioak izan dituen haur batengan, zeinaren familiak 8 eta 24 hilabete bitartean ez duela ezer esaten edo oso gutxi hitz egiten duela, edo bere hizkeran, egiaztatzen du.
- Jargoia hiru urtetik gora luzatzen duen haur bat, berez, eskuratze berantiarraren sintoma bat da.
- Hasieran, hitz erdian, errepikapen silabikoak dituzten haurrak, izerditzea, urduritasuna, konpentsazio-mekanismoak (keinuak, keinuak...), hitza saihestea eta toteltasun-aurrekariak dituztenak.
- Hiru urte eta erdi dituztenean ahoskera akatsak dituzten haurrak, diskurtsoa ulertzea arriskuan jartzen dutenak.
- Familia giro pobretua duten haurrak, kulturalki edo emozionalki arretarik gabekoak, hiztegi pobrea izaten dutenak (hizkera telegrafikoa).

## 4. ESKU HARTZEA

### 4.1. USTEZKO PARTAIDEA

Esku-hartze hau bost urteko Autismoaren Espektroko Nahasmena (TEA) duen ume bati zuzenduta dago. Ume honi TEA duela urte bat diagnostikatu zioten. Kasu honetan, diagnosia lortzea hainbeste kostatu zuen gurasoek egoera hau onartzen ez zutelako, nahiz eta umeari bi urte zituenetik TEAren hainbeste ezaugarri ikusi. Honekin batera, gurasoen inplikazioa oso eskasa da.

Dakigunez, TEAren barruan bost tipo daude: Autismoa, Rett Sindromea, Asperger, Sindromea, Heller Sindromea eta zehaztu gabeko garapenaren nahasmendu orokorra (Zuñiga, Balmaña eta Salgado, 2017). Ume hau Autismoaren barruan kokatzen da. Graduari dagokionez, 3. graduan kokatzen da, Espektro autistaren nahasmenduen mailarik sakonena, hain zuzen. Alde batetik, ez du bere hizkuntza garatu eta ekolalia aurkezten du. Bestalde, begirada saihesten du eta inguruko pertsonengan interesik ez duela ikusarazten du, ezta emozioak erakusteko ere. Azken ezaugarri hauek gero eta hobeto bideratzen ditu. Beraz, bere behar garrantzitsuena ahozkotatzea da.

#### 4.1.1. TEAren PAPER A ARRETA GOIZTIARREAN

Millá eta Mulas-ek (2009) adierazi zuten bezala, esku-hartzea ahalik eta lasterren hasi behar da, bizitzako lehen hilabeteetan, eta haurraren gaitasunen eta zailtasunen banakako ebaluazio arduratsuan oinarrituta egon behar da. Oso gomendagarria da esku-hartze programa ahalik eta lasterren ezartzea, diagnostiko seguru bat behin betiko argitu aurretik ere, hasiera batetik sintoma autistikoak tratatuz. Autore hauen arabera, hauek dira Arreta Goiztiarreko esku-hartzean kontuan hartu beharreko printzipioak:

- Arreta goiztiarreko programek malguak eta haur bakoitzaren individualtasunera eta familiaren berezitasunera egokituak izan behar dira.
- Esku-hartze programek ikuspegi kognitibo-konduktuala izan behar dute.
- Esku-hartzea tea duen haurraren, familiaren eta ingurune guztietara zuzendu behar da.
- TEA duten haurren ongizatea eta bizi-kalitatea garapen-prozesu osoan sustatu behar dira.

Arreta goiztiarreko programek TEA duten haurren garapena modu positiboan alda dezakete, eta bizi duten gizarte-errealitatea ulertzeko, komunikatzeko eta ikasteko aukera individualak hobetu ditzakete. Programa horien eraginkortasuna frogatu da, baita TEA duten haurrek

adimen-zatidurari, ikusmen-espazioko gaitasunei eta hizkuntzari dagokienez izandako hobekuntzak ere (Smith, Groen eta Wynn, 2000).

## 4.2. ESKU HARTZEAREN DISEINUA

### 4.2.1. METODOLOGIA

Esku-hartze hau hamar ekintza dituen sekuentzia didaktiko bat da. Ariketak hauek planteatzeko Andujar-rek (2015) proposatutako hizkuntza estimulatzeko programan oinarritu naiz. Guztiak umearen momentura egokituta daude, hau da, jasotzen dituen laguntzekin etengabe eboluzionatzen du. Beraz, sekuentzia didaktiko hau momentu honetarako balio du baina bi hilabete barru beste sekuentzia bat egin beharko da, edo sekuentzia hau egokitu beharko litzateke.

Eusko Jaurlaritzak abenduaren 22an onartutako 237/2015 dekretuaren eta helburu orokorrak oinarrian izanik eta bigarren esperientzia eremuan zentratuz, ondorengoak dira sekuentzia didaktiko honen helburuak:

- Ahozko hizkuntzaren jabeak eskuratzeko bidea egitea, bere beharrianak, sentimenduak eta bizipenak adierazteko gaitasuna bereganatzeko.
- Ahozko hizkuntzaren erabilera sustatzea eta balioestea, inguruarekiko harremanak modu egokian bideratzeko.
- Edozein egoeran besteek adierazten dituzten mezuak ulertzea eta interpretatzea, hartu-eman horietako arauak ikasteko eta komunikatzeko gaitasuna hobetzeko.

Sekuentzia didaktiko honen bidez, hizkuntz gaitasunak landuko dira, hitzezko (ahozko) gaitasuna, hain zuzen ere. Honekin hainbat gaitasun landu nahi dira, hala nola, lexikoa bereganatzea, ahoskatzen ikastea eta hauen arteko loturak egiteko gaitasuna.

Jarraitzeko, hurrengo edukiak landuko dira:

<b>Kontzeptualak</b>	<b>Prozedurazkoak</b>	<b>Jarrerazkoak</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Praxiak</li> <li>• Aho-aurpegiko organoak</li> <li>• Fonemak</li> <li>• Grafismoak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Artikulazioan esku hartzen duten aho-aurpegiko organoen mugikortasuna eta arintasuna garatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Errespetua materialarekiko.</li> <li>• Lan giro eroso.</li> <li>• Parte-hartze gogotsua.</li> </ul>



<ul style="list-style-type: none"> <li>• Musika-tresnak</li> <li>• Jolas sinbolikoa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Fonemak grafismo edo irudi jakin batzuekin lotzea.</li> <li>• Musika tresnen bidez soinuak bereganatzea eta soinu-tresnen arteko lotura egitea.</li> <li>• Jolas sinbolikoaren bidez ahozko hizkuntza erabiltzea.</li> <li>• Irudien bidez ahozko adierazpena lantzea.</li> <li>• Ahozko adierazpenena zuzen erabiltzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Autonomia bultzatzea.</li> <li>• Trebatzeko ahalegina egitea.</li> </ul>
--	--	---

#### 4.2.2. SEKUENTZIA-DIDAKTIKOA

Sekuentzia hau bi asteetan zehar burutuko da, asteburuak izan ezik. Sekuentzia hau egunero egingo da eta egun bakoitzean bost ariketa egingo dira, umearentzako astunegia ez izateko eta hauek burutzeko denbora behar delako. Kasu honetan, arreta eta interesa mantentzea, momentuaren arabera, oso zaila izan diateke. Ariketak horrela egingo dira:

- Egun bat: Mingaina praxiak, ezpaineke praxiak, ahosabai bigunaren praxiak, masailezurreko praxiak eta animaliak.
- Beste egunean: bokalak, musika, superheroiak, nor da? eta non dago akatsa?

Horrela bi asteak amaitu arte. Bestalde, jarduerak hiru tauletan agertzen dira helburuen arabera multzokatuta daudelako.

<b>Ekintza</b>	<i>Mingaina praxiak</i>	<i>Ezpaineke praxiak</i>	<i>Ahosabai bigunaren praxiak</i>	<i>Masailezurreko praxiak</i>
<b>Jardueraren azalpena</b>	Minaginarekin hainbat gauza egiteko urratsak emango zaizkio: 1- Ahoa itxita,	Kasu honetan, ezpaineke hainbat gauza egiteko pausoak	Hurrengo pausoak egiteko eskatuko zaio: 1- Eztula	Hau lantzeko hurrengo urratsak jarraitu beharko ditu: 1- Ahoa poliki

	<p>mingaina alde batera eta bestera jarri, gozoki bat miazkatzen duen itxuratuz.</p> <p>2- Ireki ahoa, atera mingaina eta mugitu gorantz eta beherantz.</p> <p>3-Mingainarekin ezpainak miazkatzea.</p> <p>4- Mingaina klaskatzea.</p> <p>5- Mingainaren punta atera eta ezpain-ertz batetik bestera eraman.</p> <p>6- Mingaina pixka bat atera eta arintasunez hozkatu.</p>	<p>emango zaizkio:</p> <p>1- Ezpainak gogor sakatu eta lasaitu.</p> <p>2- Ezpainak zabaldu eta uzurtu.</p> <p>3- Musu gogor eta ozenak eman.</p> <p>4- Goiko ebakortzeekin beheko ezpainari kosk egitea, eta alderantziz.</p> <p>5- Arkatz bat horizontalki eustea sudurraren eta goiko ezpainaren artean.</p>	<p>2- Aharrausi egitea.</p> <p>3- Gargarak urarekin eta urik gabe egitea.</p> <p>4. Kristal bat lausotzea.</p>	<p>ireki eta itxi</p> <p>2- Ahoa azkar ireki eta itxi</p> <p>3- Ezpainak elkarrekin mastekatu.</p> <p>4- Ahoa zabaldu eta itxi, opera-kantari bat imitatuz.</p> <p>5- Masailezurra eskuinetik ezkerre mugitu, pailazoak garela itxurak eginez.</p> <p>6- Hortzak asko estutu eta gero lasaitu.</p>
<p><b>Helburu zehatza</b></p>	<p>Artikulazioan esku hartzen duten aho-aurpegiko organoen mugikortasuna eta arintasuna garatzea.</p>	<p>Artikulazioan esku hartzen duten aho-aurpegiko organoen mugikortasuna eta arintasuna garatzea.</p>	<p>Artikulazioan esku hartzen duten aho-aurpegiko organoen mugikortasuna eta arintasuna garatzea.</p>	<p>Artikulazioan esku hartzen duten aho-aurpegiko organoen mugikortasuna eta arintasuna garatzea.</p>
<p><b>Nire papera</b></p>	<p>Pausoak egin, berak</p>	<p>Pausoak egin, berak</p>	<p>Pausoak egin, berak</p>	<p>Pausoak egin, berak</p>

	imitatzeko eta aginduarekin lotzeko eta, urratsak eman.	imitatzeko eta aginduarekin lotzeko eta, urratsak eman.	imitatzeko eta aginduarekin lotzeko eta, urratsak eman.	imitatzeko eta aginduarekin lotzeko eta, urratsak eman.
<b>Denbora</b>	5 minutu	5 minutu	5 minutu	5 minutu
<b>Materiala</b>	Norberaren gorputza.	Norberaren gorputza.	Norberaren gorputza.	Norberaren gorputza.

<b>Ekintza</b>	<i>Animaliak</i>	<i>Bokalak</i>	<i>Musika</i>
<b>Jardueraren azalpena</b>	Animalien piezak emango zaizkio eta galdera motz eta zehatzen bidez animalia bakoitzak nola egiten duen eskatuko zaio.	Banan-banan bokalen letrak erakutsi behar zaizkio, sekuentzia bat eginez, eta umeak bokalak ahoskatu behar ditu.	Musika tresna batzuk aurkeztuko zaizkio eta hauek joko ditu, erritmo bat jarraituz. Ondoren hauek imitatzera sustatuko zaio.
<b>Helburu zehatza</b>	Fonemak irudi jakin batzuekin lotzea.	Fonemak grafismo jakin batzuekin lotzea.	Musika tresnen bidez soinuak bereganatzea eta soinu-tresnen arteko lotura egitea.
<b>Nire papera</b>	Animaliak nola egiten duten erakutsi eta galderak egin.	Bokalak eta hauen fonemak erakutsi, sekuentzien paperak eman eta galdetu.	Musika tresnak aurkeztea eta erritmoak bideratzea.
<b>Denbora</b>	5-10 minutu	5-10 minutu	10 minutu
<b>Materiala</b>	Animalien piezak	Letren irudiak (Ikus 1. eranskina)	Musika tresnak (triangelua, kutxa txinatarra)

<b>Ekintza</b>	<i>Superheroiak</i>	<i>Nor da?</i>	<i>Non dago akatsa?</i>
<b>Jardueraren azalpena</b>	Superheroiak asko gustatzen zaizkio, beraz jolas sinbolikoaren bidez jolastuko da superheroietara.	Bere albuma ekarriko du eta argazkietan agertzen diren pertsonen edota lekuen izenak adieraztera bultzatuko zaio, edo argazkiak ikusterakoan nola sentitzen den adieraztera bultzatzea.	Osatu gabeko edo erroredun marrazkien ahozko iruzkina da. Marrazkia behatu behar du, zer dagoen gaizki edo zer falta den identifikatu, eta marrazkia nola egongo litzatekeen zuzen adierazi. Adibidez, sudur bat falta zaion aurpegi baten irudia.
<b>Helburu zehatza</b>	Jolas sinbolikoaren bidez ahozko hizkuntza erabiltzea.	Irudien bidez ahozko adierazpena lantzea, sentimendu, ekintza edo ideia bat azaltzeko.	Ahozko adierazpenena zuzen erabiltzea, zerbait kontatzeko.
<b>Nire papera</b>	Berarekin jolastu eta hitz egitera edo soinuak (onomatopeiak) egitera sustatu.	Galderak egin eta izenen ahoskeran lagundu.	Laminak aurkeztu eta galderak egin.
<b>Denbora</b>	15 minutu.	5-10 minutu	10-15 minutu.
<b>Materiala</b>	Kapak eta maskarak.	Albuma	Marrazkien laminak (Ikus 2. eranskina).

### 4.3. EBALUAZIOA ETA EMAITZAK

Sekuentzia didaktikoa egiteko curriculumeko lehenengo nahiz bigarren eremuan oinarritu naiz eta, beraz, ebaluatzeko orduan, 237/2015 dekretuaren ebaluazio irizpideak oinarrian izanik, ondorengoak dira proposatzen ditudanak:

Lehenengo eremukoak:

- Trebetasun motorreko abileziak hobetzea, bere ahalmenean gero eta konfiantza handiagoa izanda.
- Jardueretan parte hartzea.

Bigarren eremukoak:

- Ahozko hizkuntzaren bidez sentsazioak, emozioak, beharrianak eta gogoak ezagutu eta adieraztea.
- Ahozko hizkuntza erabiltzea besteekin harremanak izateko.

Ekintzen helburuak lortu diren ala ez ebaluatzeko erabili dudan tresna estimazio eskalan oinarritzen den behaketa taula izan da. Ezarri ditudan item-ak, helburu zehatzetan oinarrituta, 1etik 5era, gutxienetik handienera, lortu diren ala ez neurtu dut.

<b>LORPEN ADIERAZLEAK</b>	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>	<b>5</b>
Jardueretan eman beharreko pausuak ondo ulertu eta burutu ditu.				X	
Jardueretan gogotsu parte hartu du.					X
Mingainaren mugikortasuna eta arintasuna garatu du.					X
Ezpainen mugikortasuna eta arintasuna garatu du.					X
Ahosabai bigunaren arintasuna garatu du.				X	
Masailezurreko arintasuna garatu du.					X
Fonemak irudi jakin batzuekin lotzea.				X	
Fonemak grafismo jakin batzuekin lotzea.				X	
Musika tresnen bidez soinuak bereganatzea eta soinu-			X		

tresnen arteko lotura egitea.					
Jolas sinbolikoaren bidez ahozko hizkuntza erabiltzea.				X	
Irudien bidez ahozko adierazpena lantzea, sentimendu, ekintza edo ideia bat azaltzeko.				X	
Ahozko adierazpenena zuzen erabiltzea, zerbait kontatzeko.			X		

Lorpenak ebaluatzerakoan, emaitza oso desberdinak ikusi dira planteatu diren jardueren artean. Baina horrekin hasi baino lehen esan dezaket, modu orokorrean, planteatu ditudan konpetentzia guztiak landu dituela, eduki asko bereganatu ditu eta, modu batean edo bestean, planteatu diren helburuak bete dira.

Praxiak lantzen dituzten jardueretan modu dibertigarrian parte hartu du. Pausuak grazia ematen zioen eta gogotsu egiten zituen. Hala ere, pausu batzuk ondo ulertzeko, imitazioaz gain, adibideak eman dizkiot. Adibidez, hortzak asko estutu hodei (bere txakurra) aserretzen denean egiten duen bezala. Gero ilusioz bere gurasoei erakutsi dizkio jarduera hauen pausu batzuk, gehien gustatu zaizkionak.

Jarraitzeko, fonemak lantzeko bi jarduera egin ditugu, animaliak eta bokalak. Animaliei dagokeionez, beti interes handia izan du eta, aldi berean, oso urduri jartzen da. Beraz, musika lasaiaren laguntzarekin burutu dugu ekintza hau. Orokorrean, animalien fonemak imitatzeko arazorik ez du izan eta animali gehiago sartzeko aukera eman du. Bokalei dagokionez, espero nuen baino errezagoa izan da. Hala ere, ez du interes handirik izan, baina honen helburua lortu du.

Musikaren jardueran, denbora gehiago behar izan dugu ekintzaren zeregina ondo ulertzeko, hau da, erritmoen kontua ulertzeko. Horrek gehien zaildu duena izan da, baina egunak pasata asko hobetu du eta soinu hauek imitatzen saiatzen da, ni eskatu gabe.

Superheroiei buruzko gauza asko ditu eta superheroietara jolastuko genuela esan nionean, ilusio handia egin zion. Eguraldi ona egin duen egunetan parkean jolastu dugu, beste espazio honek ematen zituen aukeraz gozatzeko. Jolas sinbolikoa oso ondo bideratzen du, eta ikusi dut nola interes handia duen gauzeekin hitzak erabiltzeko beharra aurkezten duela.

Albumarekin, aurreko jardueran bezala, interes handia erakutsi du eta horrek hitz egitera bultzatzen dio. Beste jardueretan bezala, hitz egitera estimulatzeko saiatu naiz. Kasu honetan izenak, lekuak eta bizipenei izenak jartzen saiatu gara eta lekuen izenak barneratzeko edota esateko zailtasun gehiago izan ditu.

Amaitzeko, akatsak identifikatzeko ariketan, batzuetan keinuen bidez komunikatu da. Kasu hauetan keinu horiek zer diren ahoskatzera bultzatzen nion. Honekin batera, akats batzuk ikusteko zailtasunak aurkeztu ditu, baina aurkitu dituen bakoitzarekin oso pozik jarri da.

#### 4.4. HOBEKUNTZAK

Hasteko, proposamen hau diseinatzerako orduan, haur bati baino gehiagori laguntzeko proposamen bat diseinatzea gustatuko zitzaidakeen eta, horrela, konparatzeko emaitza desberdinak lortu ahal izango nituzkeen. Azken finean, etorkizun batean zenbat eta haur gehiagori laguntzea gustatuko litzaidake. Hala ere, kasu honetan, ondorioztatu daitezke esku-hartzeak ondorio positiboak izan dituela haurren hizkuntza-garapenean, osagai guztietan, baita garapen globalean ere, eta erabilitako metodologia eta gauzatu diren teknikak zuzenak izan direla berretsi da, esku-hartzea planteatzeko helburu nagusia lortzea ahalbidetuz.

Jarraitzeko, Haur Hezkuntzako curriculum-ak (237/2015 Dekretua) ahozketasunari ez dio garrantzia ematen, eta ez du osotasunean lantzen ezta jorratzen. Beste alderdi asko bezala, modu orokorrean jorratzen ditu eta, hizkuntzari buruz hitz egiten duela ikus daiteke, baina garrantzi gehiago ematen dio ikuspegi global horri ahozketasunari baino.

Bestalde, ahozketasuna lantzeko baliabideak oso eskasak eta atzerakoiak dira, eta oso zaila da umeen beharrak asetzea. Gainera, ahozketasuna lantzeko laguntza berezia behar duten umeek ez dute jasotzen behar duten arreta nahikoa. Eskolek zerbitzu minimo batzuk eskeintzen dituzte, eta badaude zerbitzu horiek osatzeko errekurtsio nahikoak ez dituzten familiak. Nire ustez, egoera hauek saihestu daitezke eskoletan ahozketasunari eman behar zaion arreta eta garrantzia ematen bazaio. Hala ere, kasu hauetan eta gaur egungo egoera kontuan hartuta, haurarekin bi testuinguru fisiko desberdinetan lan egin arren (gela arrunta eta espezifikoa), funtsezkoa da jarduera-ildo komun bati jarraitzea, haurren aurrerapena eta ikaskuntzen orokortzea errazteko. Inplikaturako eragilean (ikastetxea eta laguntzako espezialistak) arteko komunikazioa eta koordinazioa funtsezkoa da, eta prozesu horretan familia sartzen da, haurrak denbora gehiena igarotzen duen testuingurua denez, haurrak garapen integrala izan dezan gomendatzen diren jarraibideak errespetatu behar dituzte.

## 5. ONDORIOAK

Hasteko, lan honi esker, aztertu dudan guztiaz gain, hizkuntza gizakiaren jokabide konplexuenetako bat dela ikusi dut, eta haren garapena garapen emozional, sozial, kognitibo eta psikomotorrekin paraleloa dela ere. Haurrari entzuten diogunean, nola komunikatzen den, zer ulertzen duen, zer esaten duen eta nola esaten duen baloratu behar dugu, eta orden horretan, larriagoa baita haur batek desio komunikatiborik ez izatea edo osorik egiten ez duena, fonema batzuk gaizki ahoskatzea baino. Horrekin batera, beharrezkoa iruditzen zait haurrak komunikazioa eta ahozko hizkuntza garatzeko izan ditzakeen zailtasunak estimulatzeko eta jorratzeko hastea, lehenbailehen.

Jarraitzeko, lan honen helburuak lortu ditudala esan dezaket, ahozko hizkuntzaren garapenari buruzko ikuspegi globala emanez, kasu zehatz bat garatzeko egin daitezkeen jardura praktikoetara iritsi arte. Alde batetik, egin dudan berrikuspen bibliografikoari esker, hizkuntzaren nahasmendu eta zailtasunen prebalentzia handia eta arlo horretan egiten ari diren ikerketen kopurua gero eta handiagoa izan arren, oraindik gaiaren oinarritzko eta funtsezko alderdi askotan ahobatekotasunik ez dagoela egiaztatu ahal izan dut, hizkuntzaren garapena azaltzen duten eta horien artean kontraesanean dauden teoretan bezala. Bestalde, esku-hartzeak kasu jakin batean (TEA duen 5 urteko ume konkretu baten profileen oinarrituta) izan duen eraginkortasuna egiaztatzeke, esku-hartze prozesua amaitu ondoren, lortutako emaitza onak direla baieztatu daitezke, baita haurraren garapen linguistikoa eta globalaren hobekuntza ere, esku-hartze egonkorra izan dela ondorioztatuz.

Hala ere, aurreko atalean azaldu dudan bezala, Haur Hezkuntzako curriculum-aren (237/2015 Dekretua) laguntza edota euskarria benetan hutsa da. Dekretu honek ez ditu haurren beharrak asetzen. Hizkuntzaren kasuan, garrantzi gehiena idatzizkoari ematen zaio, ahozkotasuna baztertuz. Ahozko hizkuntzari buruz aipatzen dituen konpetentziak eta helburuak gehiago garatu eta sakondu behar dira umeengan kalte gehiago ez eragiteko eta behar duten laguntza eskeintzeko.

Etorkizun hurbileko Haur Hezkuntzako irakasle bezala, nire ustez, ikasgeletan ahozko hizkuntza ez dago hain baloratuta beste alderdi batzuen aurrean, curriculumak agintzen duena alde batera utzita. Gorputz-adierazpenari, irakurketaren eta idazketaren garapenari garrantzi handia ematen zaio, eta haur batek zuzen hitz egiten jakitea bigarren mailan uzten da, besteen aurrean bere aurkezpen-gutuna izango dena. Beraz, egoeri hori aldatzea gure eskuetan dago.



## 6. BIBLIOGRAFIA

- 13/2016 DEKRETUA, otsailaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko esku-hartze integralari buruzkoa.
- Andújar, O. (2015). *Discriminación fonética y memoria auditiva*. Programa de Estimulación del Lenguaje.
- Austin, J. L. (1975). *How to do things with words*. Cambridge: Harvard University Press.
- Becker, J. (1994). Pragmatic socialization: Parental input to preschoolers. *Discourse Processes*, 17, 131-148.
- Bigas, M. eta Correig, M. (2008). *Didáctica de la lengua en la educación infantil*. Madrid: Síntesis S.A.
- Bloomfield, L. (1933): *Language*. Nueva York, Holt, Rinehart and Winston.
- Burraco, A. B. (2008). La cuestión de lo innato en la adquisición del lenguaje. *Revista española de lingüística*, 38(1), 33-66.
- Caplan, D., Lecours, A. eta Smith, A. (1984). *Biological perspectives on language*. Cambridge, MA: MIT Press.
- Chomsky, N. (1989). *La naturaleza del lenguaje. Su naturaleza, origen y uso*. Madrid: Alianza.
- Chomsky, N. (1995). *The minimalist program*. Cambridge, MA: MIT Press.
- Chomsky, N. eta Place, U. T. (2020). The Chomsky- Place correspondence 1993-1994. In T. Schoneberg (Ed.), *The analysis of verbal behavior*, 17, 7-38.
- FEA de Profesionales eta GAT de Atención Temprana (2020). *Arreta Goiztiarraren Liburu Zuria*.
- Fogassi, L. eta Ferrari, P. F. (2007). Mirror neurons and the evolution of embodied language. *Current directions in Psychological Science*, 16, 3, 136-141.
- Gleason, J. B. eta Ratner, N. B. (2010). *El desarrollo del lenguaje*. Pearson educación.
- Gómez, S. L., eta Álvarez, C. G. (2005). La prevención de dificultades del lenguaje oral en el marco escolar: Evaluación e intervención temprana. *Pensamiento Psicológico*, 1(5), 73-83.


- Halliday, Michael A.K. 1975. *Learning how to mean*. London: Edward Arnold.
- Halliday, Michael A.K. 1978. *Language as social semiotic: The social interpretation of language and meaning*. London: Edward Arnold.
- Hernandez Piña, F. (1984). *Teorías psicosociolingüísticas y su aplicación a la adquisición del español como lengua materna*. Madrid: Siglo XX de España Editores, S. A.
- Hymes, D. (1967). Models of interaction of language and social setting. *Journal of Social Issues*, 23 (2), 8-28.
- Kaplan, N. (2004). Nuevos desarrollos en el estudio de la evaluación en el lenguaje: la teoría de la valoración. *Boletín de lingüística*, (22), 52-78.
- Kohler, E., S., Keysers, C., Umiltà, M. A., Fogassi, L., Gallese, V. eta Rizzolatti, G. (2002). Hearing sounds, understanding actions: Action representation in mirror neurons. *Science*, 297, 846-848.
- Lenneberg, E. (1967). *The biological foundations of language*. New York: Wiley.
- Millá, M. G., & Mulas, F. (2004). La Atención Temprana: qué es y para qué sirve. *Summa Neurológica*, 1(3), 31-34.
- Millá, M. G., & Mulas, F. (2009). Atención temprana y programas de intervención específica en el trastorno del espectro autista. *Rev neurol*, 48(Supl 2), S47-52.
- Navarro Pablo, M. (2003). Adquisición del lenguaje. El principio de la comunicación. *Cauce*, 26, 321-347.
- Navas, L. (2013). Dificultades en el desarrollo del lenguaje. *Dificultades en el desarrollo del lenguaje*, 107-128.
- Pérez, P., Salmerón, T., eta Pedraza, P. (2006). Desarrollo de la comunicación y del lenguaje: indicadores de preocupación. *Revista pediátrica de atención primaria*, 8(32), 679-693.
- Piaget, J. (1983). *Seis estudios de psicología*. Madrid: Ariel
- Piaget, J. (1974). *The language and thoughts of the child*. New York: New York American Library.

- Rodríguez, J. J., eta Santana, A. M. M. (2010). Adquisición y desarrollo del lenguaje. A. (. Muñoz García, *Psicología del desarrollo en la etapa de educación infantil*, 101-120.
- Skinner, B. F. (1957). *Verbal Behavior*. New York, Appleton Century Crofts. (Traducción: Conducta Verbal, México, Trillas, 1981).
- Smith, T., Groen, A. D., eta Wynn, J. W. (2000). Randomized trial of intensive early intervention for children with pervasive developmental disorder. *American journal on mental retardation*, 105(4), 269-285.
- Zúñiga, A. H., Balmaña, N., eta Salgado, M. (2017). Los trastornos del espectro autista (TEA). *Pediatría integral*, 21(2), 92-108.



## 7. ERANSKINAK

### 1. Eranskina: bokalak





2. Eranskina: non dago akatsa?



Encuentra las 5 diferencias:

Actividades de Infantes y Primaria

Encuentra las 5 diferencias:

Actividades de Infantes y Primaria

Encuentra las 5 diferencias:

Actividades de Infantes y Primaria

Encuentra las 5 diferencias:

Actividades de Infantes y Primaria



Encuentra las 5 diferencias:

Actividades de Niños y Primaria

Encuentra las 5 diferencias:

Actividades de Niños y Primaria

Encuentra las 5 diferencias:

Actividades de Niños y Primaria

Encuentra las 5 diferencias:

Actividades de Niños y Primaria